

# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



## Hauteskunde-kanpainan murgilduta

Urnietako Udal hautagaien elkarrizketa astekarian; Andoaingoak, hurrengoan / 2-5

### Laba Gravel, asteburuan

Andoaindik abiatuta, 110 eta 270 kilometroko bizikleta martxa bana / 12

**Futboleko botak  
berriro jantzi zituzten  
Euskaldunako  
emakumezko  
beteranoek** / 8-9

**Elite mailako  
kirolarien solasaldia  
ostiral honetan,  
Andoni Urbistondok  
bideratuta** / 13

**bertako**  
igogailuak | ascensores

**BERTAKO OROTARIKO ZERBITZUA**  
**100€-tik/hileko**

**IGOGAILUEN  
MANTENTZE-LANEN  
ESKAINZA  
ZORROTZENA**

**+2.000 bezerok gugaran  
dute konfiantza**

943 903 450  
bertako.eus



# “Gizarte politika aurrerakoiak gauzatu nahi ditugu Urnietan”

**JOANES FIEL** URNIETAKO ELKARREKIN PODEMOS KOALIZIOKO ALKATEGAIA Urnietako udalerrri mailan, eserlekurik inoiz izan ez duen arren, Elkarrekin-Podemosek ordezkari bilatu nahi du maiatzaren amaierako hauteskundeetan

**Alba Cabrera Jauregi** URNIETA  
**Nor dugu Joanes Fiel?**

Psikologoa naiz eta gizarte hezitzaile gisa jardun izan dut. Azken urteetan, Gipuzkoako Batzar Nagusietan egin dut lan. 2014an hasi nintzen politikagintzan, Podemosekin: hasieran, militante gisa, eta gaurdaino. Ildo honetan jarraitzeko gogo daukat, kasu honetan orain, Urnietan.

**Gertutik jarraitzen dute Urnietako errealitatea gainerako hautagaiek. Nola bizi duzu zuk hori? Zein harreman daukazu Urnietarekin?**

Aspaldidanik daukat harremana Urnietarekin. Hemen bizi ez banaiz ere, familia daukat herrian. Egun, Gipuzkoako Batzar Nagusietako bozeramailea naiz eta Urnietan murgiltzeko beharra ikusten genuen. Interesgarria iruditzen zitzaigun, batez ere, gurekin parte hartzera animatu nahi duen jendea begira. Era berean, pisua izan nahi dugu erakunde publikoetan, gure ideiak eta Urnietara bera ikusteko modua defendatzeko.

**Bide horretan, ez duzue sekula ordezkari izateko edukitza Urnietako Udalean. Zein aurreikuspen dituzue maiatzaren 28ari begira?**



Joanes Fiel da Urnietako zerrendaburua. AIURRI

Gogo biziz gaude. Beti jaso izan ditugu bozka dexente herri honetan, bai hauteskunde orokorretan, bai autonomikoetan... Hori horrela, garrantzitsua iruditzen zitzaigun geure burua herrian aurkeztea, eta, modu horretan, udaletxean egon, geu-

re balioak eta urnietarren ideiak babesteko.

**Esan duzun bezala, indarrarekin agertu da zuen alderdia, udal hauteskundeak ez diren gainerako bozketetan. Nola uste duzu islatuko dela hori maiatzaren 28ko hauteskontzietan?**

Jendeak hemen gaudela ikustea nahi dugu, eta aukera bat ematea. Estatu mailan eta ordezkari bitza dugun beste espazioetan jorratzen ditugun gizarte politika aurrerakoiak gauzatu nahi ditugu Urnietan ere.

**Gipuzkoako Batzar Nagusietako bozeramailea zara. Nolako jauzia da zuretzat 6.000 biztanle pasatxo udalerrira batera jauzi egitea?**

Erronka ederra iruditzen zait. Gainera, lehenagotik ere uztekoa nintzen bozeramaile kargua. Hala, Urnietara etortzea proposatu zidaten, eta oso interesgarria iruditu zitzaidan, eragargarria iruditzen zaidalako udal politikagintza. Jendearekin harremanetan zaude eta modu zuzenagoan identifikatzen dituzu herritarren premiak. Are gehiago, neure burua aurkeztu nuen, familia dudalako hemen eta askotan etortzen naizelako hona. Horrela, oso aukera ona dela uste dut eta ilusio handiz hartzen dut.

**Urnietarrak ere badira hauteszerrendan. Gertutasuna ematen al dio horrek zuen alderdiari?**

Jakina baietz, oinarritzakoa da hori. Batzuetan, jendeak ez du lehen lerroan egon nahi, baina horrek ez du esan nahi partaide ez direnik. Kide horiek gertutasun handiz erreparatzen diote herriari, herriko puntu garrantzitsuetan, azpimarra jarri ahal izateko.

**Ordezkaritza lortuz gero, zeintzuk lirateke zuen proposamenak?**

Askotariko afera garrantzitsuak daude jorratzeko eta guztiak aipatuko nizekizuke, baina luze joko luke elkarrizketak. Dena dela, besteak beste, bada bai herrian, bai Urnietaren mugak gaindituta zeharkatzen gaituen gaia: etxebizitzarako sarbidea, batez ere, gazteei dagokionez.

## Urnietako hauteszerrenda

- Joanes Fiel Echeverria.
- Leire Arto Soto.
- Ander Souza Ansia.
- Celia Martinez De Paz.
- Jose Ignacio Gomez Murguialday.
- Ana Ramos Vallecido.
- Ruben Martinez De Paz.
- Nerea Gonzalez Gonzalez.
- Jose Luis Del Cid Dorao.
- Olga Maria Gaitte Gil.
- Juan Mari Tomasena Alzuri.
- Antonio Maria Zubia Zubimendi.
- Rhizlane Zouitine Lamriss.


Etxebizitza-lege berria dugu Estatuan, eta erraztasunak ipini nahi ditugu guk, emantzipazioa ahalik eta azkarren egin ahal izateko. Jendeak Urnietan bizitza egin dezan nahi dugu, alegia, ez dadila izan lo herria. Hirigune handiagoetara jotzeko joera nagusitu den garaiotan, ahaztu egiten gara herriekin. Bada, hori aktibatu eta elikatu nahi dugu, herriko bizitza eta tokiko merkataritza. Hortan jarri nahi dugu ahalegina, Udalean ordezkari bitza eskuratuko bagenu.

**"JENDEAK URNIETAN BIZITZA EGIN DEZAN NAHI DUGU, ALEGIA, EZ DADILA IZAN LO HERRIA"**



## Andoaingo hautagaien elkarrizketak

## DATORREN AIURRI ASTEKARIAN



# "Kanpainak etorkizuneko erronkak eta proiektuak aurkezteko balio du"

**JORGE SEGURADO** URNIETAKO EAJ-PNV ALDERDIKO ALKATEGAIA

2020an, Mikel Pagolari lekukoa hartuta, alkatetza eskuratu zuen Jorge Seguradok. Lanean jarraitu nahi du datorren laurtekoan ere

**Alba Cabrera Jauregi** URNIETA

**Mikel Pagolarekin hasi zuen Urnietako EAJK bere agintaldia laurteko honetan. Hala, zuk hartu zenion lekukoa 2020an. Handia al da zinegotzi izatetik alkaterako saltoa?**

Saltoa handia da. Ardura mailari dagokionez, batez ere. Urnietan, zinegotzi lehendabizi, eta alkate, ondoren, egon naizen urte guztietan EAJ/PNV-k lan egiteko modu berdina izan du. Talde-lana, hain zuzen. Baina egia da talde horretan gidari bat dagoela eta erantzukizun hori alkatearen bizkarraren gainean dagoela. Gure eginkizuna erabakiak hartzea eta mota guztietako egoerak modu zuzen batean kudeatzea da, herriak aurrera egiten jarraitzeko. Uste dut, horretan asmatu dugula.

**Udal hauteskundeak ate joka dau den honetan, nola uztartu legegintzaldiko azken txanpa kanpainarekin?**

Lau urtetik behin kudeatzea tokatzen den egoera bat da. Udalek, kasu honetan, Urnietakoak ezin du geldirik geratu, eta, bere funtzionamenduari jarraitzen badu ere, ezin da ukatu kanpaina erdiz-erdi sartzen dela gure eginkizunetan. Azken urteetan egindakoa errepasatzeko une egokia izaten da, eta, datorren legegintzaldi berriari begira, alderdi gisa, Urnietaren etorkizuneko erronkak eta proiektuak aurkezteko ere balio du.

**Nola ikusten duzu herria laurteko honen amaieran?**

Konplexua izan den legealdian, aurrean jarri zaizkion zailtasun guztiei modu egoki batean erantzun duen herri bat garela sententzia da. Laurtekorako genituen helburu, lehentasun politikoak aldatu beharrean aurkitu gara, herritarren beharrei uneoro modurik egokienean



Jorge Segurado lehen aldiz aurkeztuko da alkategai. AIURRI

erantzuteko. Halere, etorkizuneko Urnieta eraikitzen jarraitzeko azpiegitura erronka nagusiak bideratzea lortu izan dugu.

**Gehiago osoarekin gobernatu duzue azken bi legegintzaldietan. Oposizioko alderdiek behin baino gehiagotan adierazi izan dute beren iritzia ez dela nahi beste kontuan hartu herriko aferak mahai-gaineratzean. Nola bizi duzue zuek?**

Bi legealdi oso desberdinak izan dira eta oposizioarekin izan dugun harremana desberdina izan dela iruditzen zaigu. Alderdi politiko bakoitzak bere ideiak izateko aukera erabat legitimoa da. Udalean egiten saiatu izan garen kudeaketan, ez gara alderdikieretan erori. Gure erabakien oinarrian, herritarren onura, herritarrentzako onena lortzea izan baita, eta hala izango da etorkizunean ere.

**Proiektu askoren artean, martxan da kiroldegi berria eta bidean da Egape Ikastolako eraikina. Alkatetza lortuz gero, bermatuko al dira langileen eskubideak etorkizuneko? DBHko eraikina errealtate bilakatzeko determinazioa irmoa al da?**

Udalaren esku dagoen guztia egingo dugu langileen eskubideak bermatzeko, orain arte egin izan dugun bezala.

Bestalde, DBH-ko eraikina eta honekin batera inguruan eraiki beharreko patioa, errealtate izateko gure konpromezua berresten dugu. Konpromezu hori erakutsi dugu ekintzekin eta Egapeko guraso elkartearekin, zuzendaritzarekin eta Hezkuntza Sailarekin batera buruturiko lan guztiarekin. Eusko Jaurlaritzaren eskuduntza da eraikinen proiektua garatzea eta Udalak hartuko ditu patioa urbanizatzeko lanak, Egape Ikastolarekin elkarlana sustatuz.

Patioaren proiektua udalak ia amaitua dauka. Jaurlaritzak, aldiz, eraikin berriko proiektua onartua dauka eta obra esleitzeko pleguak egiten ari da. 2024an obra hasteko prebisioa dauka Jaurlaritzako Hezkuntza sailak. **Erdibidean gelditu diren proiektuei jarraipena emateaz gain, proposamen berriak dituzue datozen lau urteei begira, alkatetza eskuratzu gero. Zeintzuk?**

Datozen urteetan, babesturiko etxebizitzak egitea, herriko gazteek beraien bizitza proiektua Urnietan garatzeko aukera izan dezaten. Herriko mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzea (Idiazabaleko boulebarizaioarekin jarraitu; Langardako biribilgune berritik, bai Lasarteruntz, bai Etxeberrri plazaruntz doazen errepideak martxan jartzea; herriaren aparkaleku gune berriak sortzea; zaharkituak dauden auzoetan irisgarritasun egokitzapenak). Yurramendiko haur parkea estaltzea. Nagusien egoitza berria eraikitzea Babilonia-ko eremuan. Skate park bat, pump truck-a, calistenia eta parkour pista instalatzea. In-

## Urnietako hauteszerrenda


- Jorge Segurado Irujo.
  - Agurtzane Mercader Ubillos.
  - Ana Pozas Rodriguez.
  - Ainhoa Ostolaza Etxaniz.
  - Mikel Martiarena Barkaitegi.
  - Mikel Artola Pagola.
  - Iñaki Muro Fernandez.
  - Manuel Mayoz Ostolaza.
  - Maribel Zumalakarregi Alonso.
  - Amaia Vaquero Montero.
  - Beñat Goenaga Arruabarrena.
  - Maria Pilar Sarasola Bulman.
  - Guadalupe Martiarena Lizarazu.
- Ordezkoak:
- David Rosco Jorge.
  - Rosa Gonzalez Leal.
  - Mikel Pagola Tolosa.

dustria-eremu berrien garapena bultzatzea eta gazteen beharretara egokitutako espazio egoki bat bilatzea. Bestalde, Xoxokako bizilagunek egin diguten eskaria lantzeko proiektu bat enkargatu dugu egon daitezkeen aukera desberdinak aztertzeko. Hauek lirake gure proposamen zehatzak.

**"AZPIEGITURAK BIDERATZEA LORTU DUGU ETORKIZUNA ERAIKITZEN JARRAITZEKO"**



## Urnietak



**ATAL BEREZIA AIURRI.EUS WEBGUNEAN**

# “Herriari modu integralean erreparatu nahi diogu”

**HERME GONZALEZ** URNIETAKO PSE-EE ALDERDIKO ALKATEGAIA

Oposizioan egon izan da beti PSE-EE Urnietan. Dena dela, lanean jarraitzeko gogoia dauka alderdiak, Herme Gonzalez buru duela

**Alba Cabrera Jauregi** URNIETA

**Bi hamarkada pasatxoko eskarmen-tua daukazu udal politikagintzan. Abantaila al da esperientzia?**

Beti egon gara oposizioan, inoiz ez dugu gobernu-lanik izan. Baina, urtez urte, esperientzia handia pilatu dugu eta oso garrantzitsua da hori. Datozen hauteskondeei begira, gainera, hirugarren aldiz aurkeztuko naiz zere-ndaburu gisa. Hala, egunerokoan ikasten da udal-txearen funtzionamendua. Jende berria sartzean, batzuei asko kostatzen zaie, beste hainbati, ez horrenbeste. Hortaz, bai, eskarmen-tua balioan jarri beharreko alderdia da.

**Maiatzaren 28ko hauteskondeekin ziklo politiko berria irekiko dela diozu. Zein norabidetan irekiko dela aurreikusten duzu?**

Emaitzak ikustera itxaron behar dugu horretarako. EAJK gehiengo absolutua galtzea gus-tatuko litzaiguke. Zergatik? Legealdi honetan, maiz gutxietsi egin zaio oposizioari, ez dira proposamenak onartu, ez da behar bezala informatu... Finean, beren buruontzat gobernatu dute, eta gainerako alderdion bizitza-politikoan parte hartzeko aukerarik gabe utzi gaituzte. Ez luke horrela izan behar horrek, parte-hartze handiagoa izan beharko genuke gainerako alderdiok ere, udal politikagintza aberaste al-dera.

**Hobeto gobernatu daitekeela uste duzu. Nola?**

Nagusiki, udaletxean. Lidergo eza ikusi dugu, esate baterako, momentu honetan, politikariek baino gehiago agintzen dute udal teknika-riek. Are gehiago, azken horiek, batzuetan, ez dagozkien erantzukizunak hartzen dituzte bere gain. Desoreka dakar horrek, antolaketa eza, hala nola: eter-nitate bat irauten dute eraikun-



Ibilbide luzea du Herme Gonzalezek Urnietako udalgintzan. AIURRI

tza-lanek Urnietan, denbora-tarte luzea igaro ohi da proiektu bat proposatzen denetik, gauzatzen den arte... Horrenbestez, gidaritza egonez gero, eta udal-txearen funtzionamendua egokia izanez gero, bestelakoa izango litzateke egoera.

**Nola ikusten duzu Urnieta laurteko honen amaieran?**

Hainbat akats garrantzitsu ditu, adibidez, punta-puntakotzat saltzen ziguten kiroldegiak. Etxebizitza-ri dagokionez, zerbait egin da, baina Babiloniako eremua garatze-ari utzi zaio. Zor handia dau-

kagu: sustatu egin behar dugu Egape Ikastolako DBH-ko eraiki-na, Hezkuntza Sailarekin gabilta eta, badirudi, lehiaketara aterako dela. Orain lau urte proposatu zuten adinekoen egoitza, baina gaur egun, oraindik ez dago ezer, duela gutxi ailegatu baitira akordio batera lur-eremu bat esleitze-ko Aldundiari. Biztanle-kopuru-ari dagokionez, nabarmenki hazi-ko da Urnieta, eta, nire ustez, ez dute kontuan hartu. Plan oroko-rra garatzen ari gara: Erroto-ge-ko etxebizitzak egin dira, Babi-lonia falta da, eta baita Azkara-teko eremua ere. Gorakada horren aurrean, herriko hainbat zerbitzu (kiroldegia, kasu) ez daude prest. **Zinegotzi banaketa bere horretan mantendu da azken bi udal hauteskondeetan: EAJ 7, EH Bildu 4 eta zuek 2. Zaila oposizioa egitea.**

Legegintzaldi honetan, 7-6 batean aritu gara, sarri. Izan ere, zen-baitetan, tokiko gaietan, gertu-tasuna izan dugu EH Bildurekin. Gainera, mozioren bat edo beste ere aurkeztu dugu elkarrekin. **Aurreko urteetako zailtasunak zail-tasun, konfiantza handia daukazu hauteskunde hauei begira. Zeintzuk dira asetu beharreko premia nagusiak?** Bigarren Hezkuntzako zentroa eta haren ondoan joango litzakeen parke inklusiboa dira gure lehen-tasunak. Ikastetxeko zuzendarit-zeekin nahiz guraso elkarteekin hartu ditugun ardurak dira. Beharrezko babesa eta sostengua ematen jarraituko diogu proiektu-ari. Era berean, gure programan dago ere urte luzez aldarrikatu izan dugun igerileku klimatizatua, tabernarekin. Urnietako Udalaren funtzionamendua birmoldatzea ere badugu xede, lehen aipatu bezala. Adinekoen erresidentzia ere inportantea da, baita jubilatuen egoitza ere. Gazteei begira, etxe-bizitzaren auziari erreparatu nahi

## Urnietako hautes-zerrenda

- Herme Gonzalez Moran.
- Consuelo Frutos Gonzalez.
- Itxaso Oronoz Hernandez.
- Patricia Ainhoa Val Hevia.
- Jose Guirado Novo.
- Maria Lourdes Navais Paino.
- Ruben Salas Frutos.
- Leyre Gonzalez Corchero.
- Miren Jasone Santos Curiel.
- Juan Manuel Jaraiz Avila.
- Maria Jose Frutos Gonzalez.
- Jose Luis Rodriguez Chans.
- Paula Torres Busto.

diogu: 2017an, 140 gazte inguru joan egin behar izan zuten Urnietatik inguruko herrietara. Tokiko merkataritza dinamizatzea garrantzitsua da; nahiz eta elkar-te bat egon, Udaletik ez zaio nahi-ko bultzada ematen, gure iritziz. Puntu gehiago jorratzeko asmoa ere badaukagu datorren laurte-koan. Herriari modu integralean erreparatu nahi diogu.

**"BIGARREN HEZKUNTZAKO ZENTROA ETA PARKE INKLUSIBOA DIRA GURE LEHENTASUNAK"**



# “Ezkertiar guztiak bildu nahi ditugu: EH Bildu da Urnietaren irtenbidea”

**EUKENI GARMENDIA** URNIETAKO EH BILDUKO ALKATEGAIA

Herritarrak entzun nahi ditu EH Bilduk, Urnietaren premiei ahalik eta modurik zehatzenean erreparatzeko

**Alba Cabrera Jauregi** URNIETA

**Urnietarra zara, sortzez. Egun, Hernaniko Portu auzoan bizi zara, baina, oraindik, harreman estua duzu jaioterriarekin.**

Kuadrilla osoa dut nik Urnieta-koa, txiki-txikitatik ikasi dudalako hemen, Egape Ikastolan. Zinema azpian hasi ginen haur eskolan, legez kanpoko zenean, eta, ondoren, egungo eraikineraren egin genuen jauzi, Santo Tomas Lizeora joan nintzen arte, ikasketekin jarraituz. Gaur egun, oraindik ere, hilerok biltzen gara herriko lagunak, elkarren berri izateko nahiz gure gorabeherak partekatuzeko, baita mundu honetan dauden arazoak, ia-ia, konponduta uzteko ere!

**Mundua konpontzeko ahalgin horretan, sindikalista zara lantoki duzun Cementos Rezolan. Aldiz, zein harreman izan duzu udal politikari?**

Behin edo behin, inguruan mugitu izan naiz, baina, ibili, bere horretan, inoiz ez.

**Herriari dagokionez, EH Bilduren komunitate barruan, “deskonexio” bat egon dela adierazi zenuen aldizkari honetarako Andoni Urbisondok egindako elkarrizketan. Nola bilatu konexio hori?**

Nik adierazi nahi izan nuen zera izan zen, jendearekin lanketa handia egin behar dela konexioa eta lotura bilatzeko. Hari horri tiraka, nork bere bizitza dauka, bere helburu, ardurekin eta arazoekin. Hala, oso zaila da erakartzen jendea kolektiboaren premiei erantzutera. Horretarako, bildu egin behar gara, elkarri entzun, eta urnietarrak erakarri, ez hainbeste politikagintzara, herrigintzara baizik. Nahiz eta azken hori politikoa ere izan, jendeak ekarpenak egin behar ditu eta horiek gauzatu egin behar dira, bestela, ez da lortuko herriaren ongizatea.



Eukeni Garmendia lehen aldiz aurkeztuko da alkatezara. AIURRI

**Ildo beretik, talde-lana izango omen da zuen jardunaren oinarri.**

Talde-lana da batez ere EH Bildu. Zerrendaburua jarri behar dugu eta batek ipini behar du ahotsa. Azken finean, bakoitzak bere pentsamendua dauka, baina kolektiboa da garrantzitsue-

na, eta, horrenbestez, baita talde-lana ere.

**Hori horrela, sei puntu aipatu dituzue zuen aurkezpen-programan.**

Eta gehiago ukitzeko asmoa daukagu, nahiz eta, aipatu programan, etxebizitzari eman garrantzi handiena. Batik bat, gaur

egun dagoen egoerarengatik, bai erosterakoan, bai alokatzean. Publikotasuna eman behar zaio auziari, eta alokairu soziala garatu, besteak beste, gure gazteek Urnietan gelditzeko aukera izan dezaten. Finean, inguruko herrietara alde egiten dugu, ez dugulako eduki aukerarik Urnietan bizitzeko.

Tokiko merkataritzari ere ipini nahi diogu arretea beste gauza askoren artean, herrian ez baitago bizitzarik, merkataritza egon ezean. Bere tokia eta laguntza eman nahi diogu, eta, ez, soilik, erakunde publikoen aldetik. Jendea kontzientziatu beharra dago, ikus dezan zein nolako ekarpen egiten dizkion herriari Urnietan bertan erosten duenean. Euskarak, emakumeak eta feminismoak ere garrantzi berezia hartuko dute gure eguneroko jardunean.

**Nola ikusten duzu Urnieta laurteko honen amaieran?**

Gehiengo absolutua izan du Eusko Alderdi Jeltzaleak, eta bere erara kudeatu du. Hori ez da ona izan, daturik gabeko legegaldi bat izan delako, ez delako aurrerapauso handirik egon. Denbora-tarteekin jokatu dute eta nahi izan dutena egin dute, gainerakooi jaramon handirik egin gabe. Herriaren ongizatea bilatze aldera, ekarpen handiak egon dira EH Bilduren partetik, eta baztertu egin dira horietako asko. Herriak aldaketa behar du, zuzenbidean, ezkerrean joan.

**Azken bi legegintzaldietan, lau zinegotzi eskuratu zituen EH Bilduk. Langa hori gaindituko al duzue?**

Gure helburua gobernantza eredu berri bat eraikitzea da, hau da, aldaketa eragitea. Kultura politikoa berri bat sortzea, elkarlanean oinarrituko dena, kon-

## Urnietako hauteszerrenda

- Eukeni Garmendia Martinez.
  - Maria Angeles Lasarte Elicegui.
  - Xabier Olan Martin.
  - Nagore Brel Gutierrez.
  - Ramon Urdangarin Iriondo.
  - Aranzazu Fernandez Gutierrez Del Olmo.
  - Xabier Yurramendi Garmendia.
  - Miren Aintzane Ostolaza Etxaniz.
  - Ander Goikoetxea Ugalde.
  - Amets Orbegozo Echeverria.
  - Gorka Iturbe Mujika.
  - Ixone Bereziartua Cornago.
  - Mikel Miren Legarreta Astiasaran.
- Ordezkoak:
- Irati Zinkunegi Ansa.
  - Jokin Lizeaga Mitxelena.
  - Hanitze Jover Lasa.

tsentsuak etengabe bilatuko dituen. Horrek guztiak ahalbidetuko du langa gainditzea. Ezkertiar guztiak bildu nahi ditugu: EH Bildu da Urnietaren irtenbidea.

**"GURE HELBURUA URNIETAN GOBERNANTZA EREDU BERRI BAT ERAIKITZEA DA"**

**IKUSBERA**  
Udaberriko Ikusbera aldizkaria

Aiurriko harpidedunek zenbaki berria buzoian jasoko dute!

**AIURRI**  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Zuhaitzaren altzoan

## KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



## POSTONTZIA

MIKEL ALVAREZ FORCADA AZPIEGITURA-LAN HANDIEN AURKARIA

# Lurraren defentsan, Gasteizen elkartuko gara

Datorren maiatzak 20, larunbatean, Gasteizen, lurraldeari erasotzen dioten makro-proiektuak errefusatzeko eta geldidatezen exijitzeko mobilizatuko gara "Lurraren defentsan, Euskal Herria bizirik!" lemapean.

Izan ere, natur guneak eta landa ingurunea industrializatuko dituzten azpiegitura berri ugariaren eraso bortitza pairatzen ari gara: zentral eolikoak eta makropoligono fotovoltaikoak, Abiadura Handiko Trenbide eta azpiegiturak, Goi Tentsioko lineak, meatzaritza

proiektu berriak, erraustegiak, negutegi industrialak eta makrogranjak... Horiek guztiak ageri dira Euskal Herriko mapan, jada martxan dauden proiektuak edo laister gauzatzekoak direnak.

Gutziz kezagarria da ikustea nola inbertitzaile handiak gure lurraldera datozen berriro ere, ingurune naturala hondatzen jarraitzeko eta orain arte kontserbatu diren baliabide natural urriak lapurtzen segitzeko.

Halaber, kostaldean eta eremu turistifikatueta hedatzen ari diren txikizio eta etxegintza espekulatuaren ondorioz, porlan azpian betirako galtzen ari gara lurrak. Proiektu horiek naturguneak eta laborantza-



lurrak bereganatzen dituzte, gure lurraldea egituratzen duten eta bizitzari eusten dioten ekosistemen desagertzea ekarriz.

Hori gutxi balitz, gobernuek enpresa handien interes ekonomikoei lehentasuna ematen diete, eta parlamentuetatik mega-proiektu horien inposaketa errazteko legeak onartzen dira, hala parte-hartze publikoa eta ingurumenaren gaineko kalteen azterketak erabat murrizten dituzten Espainiako azken legeak, nola udalei, kontzejuei eta lurralde horietako bizilagunei erabakiak hartzeko aukera eragozten dieten Tapia Legea eta gisa bereko legedi nafarra.

Azken aldian, gainera, energia krisiaren eta klima

aldaketaren aitzakiaz baliatuz, mendialdeak eta landa eremu zabalak makroproiektu eolikoz eta fotovoltaikoz josi nahi dituzte, biodibertsitatean atzerabueltarik gabeko galera eta balio natural eta paisajistiko handiko guneetan kalte larriak eraginda, baita elikadura bermatzeko ezinbestekoak diren nekarazitza eta abeltzaintza lurren hondamen nabarmena eraginda ere.

Energiaren auziari erreparatuta, energia berriztagarrien ezarpen industrialean eta mega-proiektuetan oinarrituta inposatzen ari den trantsizio energetikoaren eredu errefusagarria da guztiz, enpresa energetiko handien interesei men egiteaz gain,

kapitalismoaren hazkundera eta egungo bizimodu jasanezinari eutsi nahi dien ihesbide bat delako.

Gogor salatu behar dugu, horrenbestez, Eusko Jaurlaritzak egunotan onartu duen "Energia Berriztagarrien Plan Sektorialak" EAeko lurraldea enpresa energetikoen eta inbertsoreen nahierara atondutako "jokotaula" handi batean bilakatzen duela, eskala handiko 110 zentral eoliko eta fotovoltaikoren ezarpenari bide emanez. Hain zuzen, Munduko Bankua Barakaldoko BEC-ean elkartuko da maiatzaren 23tik 25era, elite ekonomikoen klima larrialdiaren aitzakiaz baliatuz sustatzen dituzten negozio berriak bultzatzen jarraitzeko. Haien helburu bakarra planeta arpilatzen jarraitzea eta Europako "Next Generation" programaren milaka milioi euroko funts publikoak eskuratzea da. "Trantsizio energetikoa" eta "deskarbonizazioa" bezalako terminoek beren esanahia galtzen dute gaur egungo krisi ekosoziala eragin duten berberek behin eta berriz erabiltzen dituztenean. Lurralde osoa transnazionalen esku jartzeak, makroproiektuak garatu dituzten, pobretu egiten gaitu, ahulago eta mendekoago bihurtzen gaitu.

Hori denagatik, herritar eta talde guztiak lurraren defentsan elkartzeko eta beharrezkoak diren ekintzak eta mobilizazioak antolatzea beharrezkoa da. Larunbateko manifestazioa Euskal Herriko toki askotan lurraldea defendatzeko mugitzen ari garen hainbat talde eta pertsonen arteko elkarlanaren emaitza izango da.

Natur eremuak eta laborantza lurrak zaintzea eta babestea ezinbestekoa da bizitza bermatzeko. Erabakiak pertsonengan jarriko dituzten politikak behar ditugu, eta ez kapitalaren interesetan oinarritutakoak; laborantza lurrak eta etxalde txikiak babesteko dituzten politikak, eta garraio sistema publiko eta sozial bat garatuko dutenak; energia berriztagarrien eredu deszentralizatu eta lokala sustatuko dutenak. Azken batean, natur-ondarea kaltetuko ez duen eta ondasun komuna hobetzera bideratutako eredu bat behar dugu. Euskal Herriko mendiak, natur guneak, landa eta kostako inguruneak ez dira kapitalak konkistatzeko guneak!

Larunbatean, arratsaldeko 18:00tan hasita, Gasteizko San Anton plazan elkartuko gara.



#### Xabier Lasa ANDOAIN

Aise ikusten den eta bihotzak hunkitzea lortzen duen 37 minutuko dokumentalean barrena, Euskalduna klubaren mende bateko historian gakoak izan diren hainbat pasarte deskribatzen dira. Narratzaileak ez ezik, makina bat testigantza emailek hartzen dute eginkizun hori bere gain: Pako Agirre, Luis Ezeiza, Juan Mari Velasco, Agustin Artola, Joxe Migel Arregi, Joxe Antonio Irulegi, Juan Inazio Garmendia, Ramon Iriarte, Juan Luis Anton Bixkai, Jaione Alonso, Joxi Gaztañaga, Pedro Irazu Txokolo, Joxe Mari Lopez, Maria Dolores Loidi, Jose Luis Eraso, Jimmy Brosa, Aitor Mendiluze, Conchi Muñoa, Leire Otermin, Olatz eta Gorka Irazu, Ramon Iriarte, Salba Parada...

Sherman Creative Colective da ikus-entzunezkoaren egilea.

#### Gertakizun handiak eta txikiak, uztartuta

Mintzatzaile guztiek ere, off-eko kontatzailearekin batera, mende bateko historian esanguratsuak izan diren hamaika pasarte handi eta txiki kontatzen dizkigute. Handiak, klubaren sorrera bera, Etxeberrietako zelai ospetsua, 3. mailara igotze historikoa eta ondorengo urrezko garaia, izen handiko jokalaririk, Ubitartera igarotzea, emakumeen presentzia zuzendaritzan eta zelaian, gaztetxoaren kirol eskola modernoa...

Baina historiako gertakizun handiak ez ezik, baita txikiak ere kontatzen dizkigute protagonistek, era atsegina eta entzungarria; izan ere, historia bera definitzen duten hainbat istorio eta pasadizo jakingarri eta barregarri gogorarazten dizkigute: Etxeberrietako zelai lokaztua -eta batzuetan kakaztua- eta aldagela xixtrinak, Oria ibaian dutzatze saioak, Loidi taberna mitikoan jokalarien partiduen atariko kopa eta purua hartzeak...

Nolanahi ere, oroitzapen horien guztien gainera, bada diskurtso jakin bat 37 minutuko iraupena duen dokumentalean hegaldatzen doana etengabe: izen bat (Euskalduna), hizkuntza bat (euskara), kolore bat (urdina), identitate bat, sentimendu bat (Euskalduna klubarekiko atsekimendua)... Andoaingo herritarrei eta andoaindarrei identitatea eraikitzen laguntzen dieten osagaiak, alegia. Eta horiekien itsatsita doaz, hain-

bat balio; hala nola, kolektibo bateko kide izatearen harrotasuna, laguntasuna, sakrifizioa, taldekidetasuna, bizikidetasuna...

#### Alvarez, ohorezko bazkidea

Matilde Alvarez Aranconek ohorezko satea egin zuen Euskalduna-Añorga emakume jokalarien partiduan. Euskaldunako bazkiderik aintzinakoena da, 84 urteko etxeberrietarra. Alvarezek Etxeberrietako futbol zelaian ezagutu zuen gerora bere senarra izango zen Juan Joxe Aginaga; hain zuzen, *Urdinak* dokumentalaren kartelean ageri da Aginaga.

Estreinaldia Basteron ikusi eta gero, bertan bildutako guztiak Ubitartera hurbildu ziren, Euskalduna-Añorga emakume beteranoen neurketarekin gozatzera. Bertan, ohorezko satea, ohorezko bazkideak, Matilde Alvarez Arancok egin zuen. Ondoren, Salba Parada klubeko lehendakariak Matilde izena daraman kamixeta oparitu zion.

Bere biloba Garazirekin irten zen zelaira, eta une hunkigarria bizitu zuen, harmailetan zegoen jendearen txalo eta keinu maitekorrak jasotzen zituen bitartean.

Matilde Alvarezek berak Soriako Aldealseñor herrixkan jaio zen 1939an, eta gazte zelarik Andoainera etorri behar izan zuen familiarekin batera, bizimodua aurrera atera asmoz. Aitak Algodonera lantokian lanpostua lortu zuen. Matilde Andoainera etorri eta agudo egin zen bertakoa, Etxeberrietako auzokoa. Gazte askoren antzera, Etxeberrietako futbol zelaian pasa zuen gaztaro osoa kasik, eta bertan ezagutu zuen Juan Joxe Aginaga Ganborena, Euskaldunako jubenil mailako jokalaria. Biak maitemindu eta ezkondu egin ziren. Bi seme ekarri zituzten mundura, Juan Jose eta Iñigo. Aginagak Euskaldunan zenbait urte jokatu eta gero, Hernani eta Ordiziako taldeetan aritu zen, hirugarren mailan. Iñigo semeak azaldu duenez, aurrelaria zen, eta nahiz eta gorputzez txikia izan, baloiarekin bizkorra behar zuen izan, aurkariari txiri egin eta golak erraz sartzen zituen horietakoa.

Matilde ahal duen guztietan azaltzen da Ubitarterko zelaira, eta azken denboraldian badauka arrazoi bat gehiago, izan ere, Garazi biloba Euskaldunako infantilen mailako taldean jokatzen ari da.



Matilde Alvarez, Garazi bilobarekin eta Iñigo semearekin, Euskaldunaren mendeurreneko erakusketan. Besteak beste, Juan Jose Aginaga senarra argazki batean ageri da eta *Urdinak* dokumentaleko kartelaren irudi nagusia da AIURRI

# Mendea, *Urdinak* dokumentalean

**FUTBOLA** Euskaldunaren mende bateko historia 37 minututan kontatzen duen *Urdinak*. Berde gainean. 100 urte dokumentala aurkeztu zuten Basteron, joan den larunbatean. Youtuben ikusgai dago, euskarazko nahiz gaztelaniaz



Ubitarte zelaian, partida amaituta, taldeko argazkia atera zuten. Jendetza elkartu zen harmailatan. AIURRI

# Futboleko botak berriro ere jantzita

**FUTBOLA** Euskaldunako jokalariai beterrak Añorgako jokalariai beterrak aurkako partida izan zuten, joan den larunbatean, Ubitarten. Herritar ugari erakarri zituen klubaren mendeurrena omentzeko hitzordu bereziak

**Alba Cabrera Jauregi** ANDOAIN  
Aurrera darrai Euskalduna futbol-kluba bere mendeurrenean omentzeko ekitaldi-sortak. Hala, urte hasi zenetik, makina bat ekimenez goatzeko aukera izaten ari dira andoaindarrak eta futbolzaleak. Joan den asteburuan, esaterako, hitzordu hirukoitzak izan zuten herritarrek, zelai-barruan nahiz bertatik kanpo, ehun urteko ibilbidea gogoan hartzeko. Lehenik, "Ur-dinak. Berde gainean 100 urte" dokumentalaren proiektzioa egin zen Bastero kulturgunean, goizeko 11:30ean hasita. Klubaren bueltan, hamarkadaz hamarkada izandako protagonisten aho-tsak entzuteko aukera izan zuten

bertaratu zirenek. Hori horrela, estreinaldiaren ondotik, eta Aita Larramendi Ikastolan egindako herri bazkaria baino lehen, hitzordu berezia izan zen Ubitarte futbol zelaian: Euskalduna eta Añorgako jokalariai beterrak aurkako partida izan zen.

Matilde Alvarez klubeko bazkide bereziak eman zion hasiera jokoari, eta hantxe, futboleko botak berriro ere jantzita jokatu zuten neurketa Ubitarte, jada, orain urte batzuk utzita zeukatenek. Ordu-erdiko bi zati izan zituen norgehiagokak, eta bietan ala bietan, aski nagusitu zitzaion talde donostiarra etxekoei. Partida hasi bezain azkar sartu zuten añorgatarrek lehen gola, eta,

horrela, 0-3-ko emaitzarekin ailegatu ziren atsedenaldira. Joera berari eutsi zion neurketak bigarren zatian ere, gola sartzeko zenbait aukera garbi izan arren, 0-5 galdu baitzuten urdinek.

Emaitzak emaitza, irribarre handi batekin hurreratu ziren jokalariai harmaila aldera. Izan ere, jendez lepo zegoen, eta, nabari zenez, eguraldi kaskarra ez zen nahikoa oztopo izan, klubeko beterrakoen eskutik, futbolaz goatzeko. Tentek ere, klubeko maskotak, ez zuen inondik inora ere zita galdu nahi izan, eta hantxe ibili zen, harmailatan gora eta behera, haurrei zozketarako zenbakiak oparitzen: aterkia, banderolak, kantinplo-



Gogotsu aritu ziren Euskaldunako jokalariai, mendeurreneko partidari. AIURRI



Urteak pasa arren, Añorgako jokalariai kalitatetik ez dute galdu. AIURRI

rak... Askotariko sorpresak banatu zituzten antolatzaileek. Ekitaldi biribila izan zen larunbat goizeko partida. Babes handia erakutsi zieten herritarrek eta txalo-zaparrada artean jaso

zituzten bi taldeetako jokalariai guztiak. Aitzakia ederra izan zuten, hortaz, aspaldian aldage-lan utzitako futboleko botak berriro jantzi eta zelaira salto egiteko.





Miriam Rica Rodríguez, Andrea Caballero Hernández, Nahia Artola Olazabal, Leire etxeberría Rodríguez, Marta Ollacarizqueta Solana, Maialen Díez Rezola, Ane Dominguez Espino, Janire Pérez, Leila Txueka Otaegi, Mara Lasa Inza, Irati Uranga Aiertza, Maider Arabalaza Aguirrezabal, Idoia Aznar Etxeberría, Miren Dominguez Elozegi, Irati Zabala Vazquez, Ane Otamendi Agirretxe, Maialen Oizartzabal Laskibar, Oihana Rebollar, Maider Albizu. Entrenatzaileak: Eneko Baltasar, Alex De Lucas, Josu Domínguez eta Iker Lasquibar. AIURRI



Laura Gonzalez, Ainhoa Bakero, Maialen Gainerain, Esti Aizpurua, Itsasne Alcain, Ainhoa Insausti, Arantxa Breton, Esti Bajo, Eli Enciso, Idoia Palacios, June Torrealda, Ainara Garnica, Nagore Lizardi, Nerea Matxinandiarena, Ane Ormazabal. Entrenatzaileak: Jesus Berra eta Arantza del Puerto. AIURRI



Granadan, Athleticen eta Zaragozan jokatu zuen Joxe Mari Lasak. AIURRI

## Erakusketa ikusteko azken egunak

Klubaren ehun urteko ibilbideko argazkiak, egunkarietako antzinako albisteak, jokalarien jantziak eta klubak eskuratutako trofeoak ikusgai daude. Erakusketa zabalik izango da larunbatera bitarte. Ostegunean eta ostiralean 18:00etik 20:00etara, eta larunbatetan 10:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:00etara. Egun hauetan bisitarien kopurua handitzen ari da, azken egunak direla jakitun. Bat baino gehiago, gainera, behin baino gehiagotan hurbildu da erakusketara. Hiru argazki handi jarri dituzte Basteron: Euskalduna Etxeberrietan jokatzeko ageri den lehenbiziko argazkietako bat, zuri-beltzean, Euskaldunak historian izan duen lehenbiziko emakume taldea eta taldeko argazki berezia, non 2022-2023ko denboraldiko jokalaria, entrenatzaile eta zuzendaritzakide guztiak eta maskota berria azaltzen diren. Argazki gehiago ikusgai daude. Hiru aro berezi dituzte, 1923tik 1960ra, 1960tik 1998ra eta 1998tik 2023ra.



Erakusketara jende ugari hurbiltzen ari da. AIURRI

# SAGARDOAREN TXAPELKETA™ Orona

Maiatzak 22. Astelehena 18:00etik aurrera. Bakarreta jai alai (Hernani). Sarrera 5€

**DI. PARTIDA** 2 SETS / 10 SARTOKA - 3 SETS / 5 SARTOKA

**ABURUZA** ANSA II ZALDUAI

**GERBIZETA X Txvica** EZKURRA II ZUBIRI

**DI. PARTIDA** 2 SETS / 10 SARTOKA - 3 SETS / 5 SARTOKA

*Pelritegi* **ALDABE AZPIROZ**

**BEZELAZIARTUA** **SEGUROLA JUANENEA**

ERREMONTARI

## Emakumeena ere abiatu da

**PALA** Iturzaeta txapelketaren bigarren jardunaldian, emakumeak ere lehia hasi ziren Sorabillako frontoian. Bi norgehiagoka jokatu ziren, eta guztiak txapelketan elkarren aurka arituko dira. Bikote gutxi eman dute izena aurtengoan, baina jokatzeko gogo handia. Gainerakoan, aurrera doa txapelketa. Asteburu honetan eta hurrengoan partida ugari jokatuko dira.



Edurne-Amaia Gonzalez eta Oihana Arruti-Nora Mendizabal. AIURRI



Elixane-Alaine Jauregi eta Neide Garmendia-Ainhize Urkola. AIURRI

# Pala goma, pala motza eta larruzko paleta

**HERRIARTEKOA** Iragan asteburuan pala modalitatean hainbat partida jokatu ziren. Paleta gomaz Anoeta gailendu zen (2-1). Bestalde, pala motzean eta larruzko paletan orekatua egon zen, partida bat galduta eta bestea irabazita



Zutik: Julen Loidi eta Xabat Amilibia. Makurtuta: Mikel Agirre eta Josu Etxeberria. GAZTELEKU

**Mikel Arberas** ANDOAIN Andoainek Anoetaran aurka jokatu zuen paleta gomaz, Herriartekoan. Hiru partidetatik bakarria irabazita, Andoainen maila bereziki ona eman behar dute hurrengo fasera igarotzeko. Julen Loidik garaipena eskuratu zuen, banaka, Alain Luisaren aurka (20-12). Xabat Amilibiak eta Mikel Agirrek lan egin arren ezin izan zioten Beñat Luluaga eta Juan Karlos Otero-

ri aurre egin (6-20). Azkenik, Josu Etxeberriak gutxigatik galdu zuen Aritz Luisaren aurka (17-20)

**Pala motza eta larruzko paleta** Gomaz jokatzear gain, paleta larruzko eta motzeko Herriartekoa ere jokatu zuten iragan asteburuan, Errenteriaren aurka. Paleta larruz galdu egin zuten (16-35) eta pala motzean irabazi (40-18). Esan beharra

dago, Iñaki Lopez de Munainek lan handia egin zuela, eta emaitzak erakusten ez duen arren, partida ona jokatu zuela Koldo Poncekin batera.

Pala motzean, berriz, emaitza bestelakoa izan zen, garaipen argia eskuratu baitzuten (40-18). Altuna eta Iradi gogo handiarekin kantxaratu ziren, eta hasiera batean galtzen hasi ziren arren, segituan hartu zioten neurria partidari.



Andoaingo esku pilotako taldea. GAZTELEKU

## Andoain sendo agertu zen Idiazabalen aurkako partidetan

**HERRIARTEKOA** Ostiral honetan, itzuliko partidak 19:45tik aurrera jokatuko dira Arrate pilotalekuan

**Mikel Arberas** ANDOAIN

Andoainek hiru partidetatik bi irabazi zituen Idiazabalen aurkako Herriarteko txapelketan. Sendo agertu dira eta txapelketan aurrera egiteko nahia erakutsi dute.

Lehen norgehiagokan, Mikel Gaztañaga eta Aimar Beroz kadeteak nabarmen gailendu ziren (9-22). Lehen minututik nagusi izan ziren eta emaitza bikaina lortu zuten. Mikel Gaztañaga oso pilotari teknikoa da, eta, haurra zenetik, kantxan nabarmendu izan da. Bestetik, Aimar Berozek pilotari sena oso barneratua du eta maila handia erakusten ari da azken urtetan. Hori gutxi balitz, urteak daramatzate elkarrekin jokatzen. Beraz, bikotearen arteko elkarulertzea eta maila altua uztartuta, partidaren erraz gailentzea lortu zuten.

Bigarren partidaren, berriz, Julen Gaztañagak eta Beñat Salbadorrek ezin izan zuten garaipen preziatua eskuratu (22-8); Andoainen partidari bira emateko bigarren aukera edukiko dute. Julen Gaztañaga aurrelari petoa da eta lehen koadroetan jokatu ohi du. Salbador, berriz, pilotari altuera handia ematen dion atzelaria da, horiek horrela, Arrate frontoian aukera paregabea edukiko dute partidaren ezustekoa emateko, herritarren babesarekin.

Azkenik, Eneko Beloki promesak eta Imanol Usandizaga beteranoak lehen partidako emaitza bera lortu zuten (9-22). Bikote oso indartsua osatu dute, eta elkar ondo ulertzen dutela nabari da. Itzulerako partidaren faltan, eta gauzak aldatuko ez balira, hurrengo fasera igaroko liriateke andoaindarrak.

## Leitzaran bailaran

**ATLETISMOA** Aurreko udan Amasa-Villabonan hasi eta amaitu zen mendi-lasterketa berria, Trikuharri. Bigarren edizioa larunbat honetan izango da, eta ibilbidean Leitzaran bailara zeharkatuko dute. Goiburuko kanaletan barrena ibiliko dira. Horixe da lasterkariak bertatik bertara ikusteko tokietako bat. Argazkian, iaz, Rajado. andoaindarra



AIURRI

## Zegama-Aizkorri

**ATLETISMOA** Eguraldiak baldintzaturiko edizioa izan da, azkena. Ibilbidea bera moldatu behar izan zuten, gainera.

**Andoain**

Asier Rajado, 70.	04:37:58
Oier Escudero, 91.	04:47:41
Maialen Gurrutxaga, 40.	06:19:34

**Urnieta**

Mikel Legarreta, 151.	05:17:34
Unai Ezeiza, 198.	05:49:02



2022/AIURRI

## Mentaren garaipena

**ATLETISMOA** Igande goizean Javi Menta Aretxabaletako Otala Zelai krosaren 43. edizioan gailendu zen. Urkulu urtegiari itzulia ematen diote lasterkariak. Hauxe da Mentaren lehen parte-hartzea eta garaipena eskuratu zuen. Sasoiko dagoela erakutsi zuen andoaindarrek, beste behin ere.



GOIENA

## Zazpi garaipen lortu dituzte

**SASKIBALOIA** Bizitako lehen esperientzia bikaina izan da.

**SASKIBALOIA** Infantil Emakumezkoak Partaidetza

**SAILKAPENA**

1 GOIERRI	20 puntu
2 LACOR	18 puntu
3 GANBARA-PLASTIGAUR	17 puntu

**AZKEN PARTIDA**

27-35 Take Uzturre-Ganbara Plastikaur



AIURRI



Euskalduna taldea. EUSKALDUNA

## Hirugarren postua ziurra du Euskaldunak, Gorengo mailan

**FUTBOLA** Real Union B taldeak nagusitasun handia erakutsi du, liga osoan

**Erredakzioa** ANDOAIN

Aurreko asteburuan 1-3 irabazi zuen Andoaingo taldeak, Oizartun taldeko zelaian. Eta asteburu honetan jokatu den partidarekin azken jardunaldira iritsiko da Gizonezkoen Gorengo maila. Euskalduna Axularren aurka ariko da, Ubitarte zelaian.

**FUTBOLA**

Gorengo maila maila

**SAILKAPENA**

1 REAL UNION B	69 puntu
2 DEUSTO	60 puntu
3 EUSKALDUNA	55 puntu

**AZKEN JARDUNALDIA**

18:30 Euskalduna-Axular / Lar, 20



1.Erregionala mailako igoera fasean bikain ari da Urnieta. AIURRI

## Emozioz beteriko igoera fasea, azken jardunaldiraino

**FUTBOLA** Azken partida 2.sailkatuaren etxean da. Lehen postua, beraz, Landetxa eta Urnieta artean jokatu da

**Erredakzioa** ANDOAIN

Lidertzan da Urnieta, eta azken partida bigarren sailkatuaren etxean izango da. Aurrekoan, Urnietak Behobia 3-0 garaitu zuen etxean. Eta Landetxa eta Lengokoa taldeen arteko partida berdinketarekin amaitu zen.

**FUTBOLA**

Gorengo maila maila

**SAILKAPENA**

1 URNIETA	22 puntu
2 LANDETXA	21 puntu
3 MARIÑO	21 puntu

**AZKEN JARDUNALDIA IRUNEN**

18:30 Landetxa-Urnieta / Lar, 20



Auzolanean jarduten duen talde antolatzailea. LABA

# Laba topaketaren bigarren edizioa

**TXIRRINDULARITZA** Gravel Topaketaren 2.edizioa antolatu dute larunbat honetarako, Andoainen. Bizikletan ibiltzeko estilo berri honen zaletuei bi proba jarri dizkiete aukeran aurten: Laba 270 km eta Laba 110 km. Hazten doan kirol jarduera da



LABA topaketan parte hartu zuten zenbait andoaindar: Imanol Arruti, Ander Septien, Igor Otaegi, Jabi Miguel eta Carlos Garcia. LABA

## Xabier Lasa ANDOAIN

Gravel Topaketaren bigarren edizioa antolatu dute larunbat honetarako, Andoainen. Bizikletan ibiltzeko estilo berri honen zaletuei bi proba jarri dizkiete aukeran aurten: Laba 270 km eta Laba 110 km. Modalitate hori hazten doan bezalatsu ari da hazten Andoaingo Laba topaketa, baina auzolanean jarduten duten antolatzaileek ez diote lehiaren filosofia itsatsi nahi.

Talde antolatzaileko bi kideek, Nekane Goikoetxeak eta Igor Otaegi eman dituzte topaketaren gaineko xehetasunak. Azaldu dutenez, goizeko 05:00etan irtengo dira lehen saiokoak; ordu erdi lehenago, 04:30ean, Arruti gozotegian kafea hartzeko aukera edukiko dute. 05:00etan Leitzarar aldera abiatuko dira. Laba 110 km-ko parte-hartzaileek, 10:00etan irtengo dira. Ez da erraza kalkulatu zenbat ordu beharko duten ibilbide osoa egiteko, baina gutxi gora beherako estimazioak eginak dituzte, Otaegi argitu duenez: “Laba luzean, baten batek 13-14 orduetan egin dezake, baina orokorrean, 16, 17 edo 18 ordu beharko dituzte. Horrela, bi probetako parte-hartzaileak nahasita azaldu daitezkeela uste dugu”.

Leitzarar bailaran barrena abiatu, eta honako lekuetatik igaroko dira parte-hartzaileak:

- Laba 270 km: Leitza, Ezkurra-ko gaina (Basakabi), Goizueta, Gurutzeko kaskoa, Artikutza, Bianditz, Lesaka, Doneztebe, Artze, Labeaga, Latasa, Madoz, San Miel, Igaratza, Lekunberri, Andoain.

- Laba 110 km: Leitza, Kornieta, Beruete, Latasa, Uitz, Andoain.

Zumea plazako helmugan karpia ipiniko dute, eta bertan festa txikia antolatuko dute, parte-hartzaileei merezi duten ongietorria emateko. Halaber, gonbite berezia zabaldu nahi izan dute antolatzaileek, “Gravel estilo honek jakinmina pizten dien pertsonen mezua zabaldu nahi genieke, hurbil daitezten eta mundu hau gertutik ikus dezaten, kirolarien profila, erabiltzen dituzten bizikletak, materiala, osagaiak...”.

## Berrikuntzak, iazko ediziotik

Bigarren proba sortzea izan da berrikuntza nagusia, Goikoetxeak zehaztu duenez, “Gravelaren zaletuei eskaintza zabaltzeko, eta besteak beste, emakumeen parte-hartzea errazteko erabaki dugu holaxe egitea, bigarren

edizio honetan”. Bestalde, ibilbidea, zerbait aldatu dutela adierazi du Otaegi: “iaz zenbait herri eta zibilizazio-gune (Hondarribia, batez ere) zeharkatu zituen ibilbideak, eta Gravel filosofiarekin ahalik eta zorrotzen jokatu nahi dugunez, errepide zati hori saihestu nahi izan dugu”.

Gogoan izan behar da zein den topaketaren LABA izenburuaren jatorria: zeharkatuko dituen lau bailara edo parke naturalen izenekin osatutako akronimoa da, hots, Leitzarar, Artikutza, Bidasoa eta Aralar.

## Gravel, goraka doan modalitatea

Nahiko berria da bizikletan ibiltzeko Gravel estilo edo filosofia, eta ez dago soberan gogoraztea berarekin dituen zenbait printzipio edo balio: abenturazaletasuna, buruaskitasuna, erronka pertsonala, tokian tokiko natura nahiz giza-inguruaz gozatzea... Nortzuk diren bere praktikatzailerak jakiteak ere, erraztu dezake bere ezagutza: alegia, asko eta asko, orain arte behintzat, asfaltoarekin nekatu ostean, naturan barrena pista ahalik eta lauetatik eta pardel askorik gabe ibiltzea gogoko duten txirrindulariak direla.

Bizikletarekin kirola praktikatzeko modalitate berri samarra da Gravel-a, hazten ari dena urtez urte. Probak eta lehiaketak ere neurri berean ari dira hazten mundu horretan. Bana Andoaingo talde antolatzaileak argi dauka zergatik jaio zen eta zeri eutsi nahi dion, Otaegi gogoratu duen bezala: “Gravel estiloa sustatu nahi dugu, LABA proba Gravel zaleen topagune izan da. Ez dugu lehiaketarako jauzia egin nahi. Ohartuta gaude, iaz, urtaro honetan, proba bakarra antolatu zela Euskal Herrian, eta jada aurten, sortu direla lehiaketa batzuk han hemen. Baina ez daukagu dinamika horretan sartzeko asmorik. Gure probaren erakargarritasuna, topaketaren filosofian, zeharkatzen dituen lau paraje naturaletan eta bere gogortasunean datza, eta horri eutsiko diogu”.

**LARUNBAT HONETAN  
GOIZEKO 05:00TAN  
ABIATUKO DA MARTXA  
LUZEA, ZUMEA  
PLAZATIK**

## Yeray Martin, lehen mailakoa

**FUTBOLA** Emakumezkoen Eibarrek lehen mailara egin du jauzi, Yeray Martin Andoaingo entrenatzailearen gidaritzapean. Zailtasunak zailtasun, entrenatzaile andoaindarrak taldea gogarazteko giltza eduki du esku artean, eta 90 minutuz sufritu ostean, berdinketa lortu eta iguera amestua lortu zuten. Datorren urtean, Real eta Athletic-en aurka ariko dira. Zorionak!



EIBAR



AIURRI

# ELITEKO KIROLARIAK MAHAI INGURUA

**Maiatzak 19**  
**19:00**  
**Lekaio**

Ainhoa Ostolaza  
Imanol Ansa  
Jokin Lizeaga  
Nerea Arruti  
  
Andoni Urbistondok  
gidatuta

663 043 314  
praktikatu.eus/blog/zilegieskola  
zilegieskola@esk.eus  
@zilegi\_eskola

## Irazu eta Eskudero garaile

**ERREMONTA** Jon Irazu eta Aritz Eskudero erremontariak maila handia erakutsi zuten Beasainen jokatu zen Herriz Herri erremonteko txapelketan; set-etan bi huts irabazi zuten adunarrak eta andoaindarrak (15-3 eta 15-8). Gurrutxagak eta Aiestaranek ezin izan zuten askorik egin aurkarien pilotakada bizien eta teknikoen aurka.



AIURRI

## Taberna arteko futbol lehiaketa

**ARETO FTUBOLA** "Interbares" futbito txapelketa berreskuratu nahi dute hainbat herritarrek. "Giro herrikoia eta polita" sortzen zuela azpimarratuta, Change.org orrian sinatzeko aukera ahalbidetu dute. Informazio gehiago edo kontakturako idatzi Instagramera: interbares\_andoain.

## Emitza bikainak

**IGERIKETA** Buruntzaldea Igeriketa Taldeko kideek Ordiziako I. saria lehiaketan parte hartu zuten. Tartean zen Ane Meyer andoaindarra ere. Maila oso onean lehiatu zen eta entrenamenduen emitza marka pertsonaletan islatu zuen. Bular eta igeriketa librean marka onak lortu zituen; 100 metroan 2:00.30-ko eta 1:21:06-ko denbora, hurrenez hurren.



BURUNTZALDEA

## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 18

**ANDOAIN Erakusketa**

Euskaldunaren mendeurrenoko erakusketaren irekiera ekitaldia. Maiatzaren 20ra arte zabalik. 18:30, *Bastero*, erakusketa aretoa.

**ANDOAIN Deialdia**

2022-2023 ikasturtean euskara ikasteko diru-laguntza. Informazio osoa: andoaindarraeuskaraz.eus. *Azken eguna: Ekainak 16.*

**URNIETA Tailerra**

Xaboi tailerra, Zilegi eskolaren baitan. Andrea Revueltaren eskutik. 18:00, *AEK euskaltegia*.

**URNIETA Lehiaketa**

Sanmieletoak jaiak iragartzeko kartel lehiaketa, martxan. 500 euroko saria irabazlearentzat. *Oinarriak: Urnieta.eus.*

**URNIETA Filma**

"Temblores" filma. Homosexualitatea ardatz duena. 19:00, *Sarobe*.

**ANDOAIN Aurkezpena**

"Amaiur! Libera State" liburu-illustratuaren aurkezpena. Asisko Urmenetaren parte hartzearekin. 19:00, *Santa Krutz elkarte*.

## OSTIRALA 19

**ANDOAIN Bisitaldia**

Gotzaiaren bisitaldia Santa Krutz elizara. Ekitaldia irekia da. 19:00, *Santa Krutz eliza*.



Andoni Mutiloa. AIURRI

**URNIETA Ikuskizuna**

"Sex sua", Andoni Mutiloaren eskutik. Antzerkia, dantza eta musika nahasten ditu obrak. Ligatzeko aplikazioak, komunikazio-kode berriak eta horiek pertsonen arteko hartu-emanetan izandako eraginak ditu abiapuntu obrak. 19:00, *Sarobe*. *Euskaraz. Maiatzak 19, ostirala.*

**URNIETA Solasaldia**

Eliteko kirolariak: Jokin Lizeaga, Ainhoa Ostolaza, Nerea Arruti eta Imanol Ansa. Moderatzailea: Andoni Urbistondo. 19:00, *Sarobe*.

**ANDOAIN Antzerkia**

Komedia madarikatua. 20:00, *Bastero*.

**ANDOAIN Elkarrizketa-sorta**

Udal hautagaiei jendaurreko elkarrizketak antolatuta ditu Aiurrik. 19:00, *Maidar Lainez*. *Bastero*. 20:00, *Imanol Goenaga*. *Bastero*.

## IGANDEA 21

**ANDOAIN Haur antzerkia**

"Gure kanoa", Zurrunka Teatro konpainiaren eskutik. Txotxongilo ikuskizuna. 12:00, *Bastero*.

## ASTELEHENA 22

**URNIETA Odol-emaileak**

Odola emateko hitzordu berria. Ordua hartzeko: 943 007 884. 16:30-20:30, *Gaztelekua*.


## ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Fatum**

Lar, 20. 19:30, 22:00.  
Ig., 21. 19:30.  
Astl, 22. 19:30, 22:00.

**El incidente alienígena del pequeño Alan**  
Lar, 20. 17:00.  
Ig., 21. 17:00.

**Las buenas compañías**  
Maiatzak 27-29.



## SINOPSIS

**Fatum**

**Zuzendaria, gidioia:** Juan Galiñanes. **Aktoreak:** Luis Tosar, Alex Garcia, Elena Anaya, Arón Piper, María Luisa Mayol, Pepa Gracia, Ethan Alvarez. **Herrialdea:** Espainia (2022). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Thrillerra, lapurreta. **Iraupena:** 91 min.

## Lapurreta apustu-etxean

Sergiok (Luis Tosar) arazo larriak ditu jokoarekin. Emazteari berriro eroriko ez zela zin egin ondoren, futbol partida bateko uesteko iruzur baten berri izan du eta, hitza bete ezinik,

apustu-etxera itzuliko da, galdutako diru guztia berreskuratzeko asmoz.

Tiro batek protagonisten bizitzak aldatuko ditu betiko.

**HERRI**<sup>40</sup>  
**URRATS**

urratsak zubi  
Senpere · Maiatzak 14

**ELKARTASUN UHOLDEA BEHAR DUGU  
ZUBIAK ERAIKITZEN JARRAITZEKO**

**SUSTENDUA**

**LABORAL KUTXA ES87 3035 0059 8205 9073 1197**

**KUTXABANK ES98 2095 5045 8710 6117 7332**

**BIZUM BIDEZ, HERRI URRATS AUKERATUTA DOHAINZA EGITEKO**



AIURRI

## Hitzordua, Gordelekuan

Museoen nazioarteko egunarekin bat eginez, Andoaingo Gordelekua zabalik izango da hurrengo egunetan. Egoitza Extremadura kalea, 7 helbidean dago. Maiatzaren 18an, 19an eta 20an zabalik izango da. Orduetgia: 11:00-13:00/18:00-20:00. Burdina taldeak gordetzen duen ondarea bertatik bertara ezagutzeko aukera izango da.

## Haur antzerkia Basteron

Igandean, 12:00tan hasita, "Gure kanoa" haur antzerkia Basteron. Sinopsia: Abba, Senegaleko arrantzaile familia batean jaiotako haur ausartaren istorioa du. Arrainen Etxean arrantza egiten jarraitu ahal izateko, Abba abentura luzean murgilduko da, bi mundu ezberdinen kulturak hurbilduz eta Maam Kumbaren ahotsa Izaroren herriraino emanaz.



ZURRUNKATEATRO



AIURRI

## Abesbatza, hara eta hona

Andoaingo Udala Musika Eskolako Abesbatzak bi hitzordu ditu, datozen egunetan. Añorgan, Karmengo Amaren parrokiaren ariko da larunbat honetan. Maiatzaren 20an izango da, 19:00etan hasita. Astebete beranduago, maiatzaren 27an, Andorrako Meritxelleko Andre Mariaren Santutegian ariko dira. 18:30ean hasita.

## POSTONTZIA

C2 PROIEKTUAK KALTETUTAKOEN PLATAFORMA ANDOAINX

### Auzo batzarrak

CII proiektuak kaltetutako enplazamenduak andoaindarrei jakinarazi nahi die, maiatzaren 18, 19 eta 20rako aurreikusita zeuden auzoko bilerak bertan behera geratzen direla.

Bilerak eten egiten dira ezinbesteko arrazoiengatik. Gainera, gaiarekin estuki

erlazioaturiko eta aste honetarako antolatutako beste zenbait ekitaldi garantzitsu batzuekin bat datoz, hala nola, Aiurrik Andoaingo alkategaiekin antolatu dituen elkarrizketa publiko irekiei lekua uztea, horietako batzuk gure auzoko batzarrekin bat zetozelako.

### Musika-eskolan matrikulatzeko epea, zabalik

Maiatzaren 19tik 31ra egongo da zabalik Lourdes Iriondo Musika Eskolan 2023-2024 ikasturterako matrikulazioa egiteko epea. Horretarako, matrikularen inprimakia bete eta lourdesiriondo@urnieta.eus helbidera bidali beharko da. Askotariko espezialitateak bermatuko dira datorren ikasturteari begira

- Musika tailerra: 4, 5 eta 6 urteko haurrentzako saioak. Musika eta mugimenduaren bidez kantua, entzumen-heziketa. 45 minutuko 2 saio astean.
- Musika hizkuntza: edozein partitura irakurri eta interpretatu ahal izateko beharrezko baliabidea. Astean ordubete bi saio.
- Espezialitateak: pianoa, trikitia, biolina, klarineta, saxofoia, tronpeteta eta perkusioa. Astean ordu erdiko saio bat.
- Instrumentu taldeak: instrumentua urte batez ikasi ondoren, ikasleek taldekako eskoletan parte hartzeko aukera izango dute.

### Liburuaren festa Etxeberri plazako merkatarien eskutik

Datorren ekainaren 11n egingo dute Etxeberriko merkatariek, Liburuaren festa. "Esan diren eta ez diren hitzen eguna", horixe da goiburua. Liburu trukaketa, hitzaldiak, abesti-topaketa... osagai ugari izango ditu. Etxeberri plazan bertan izango da hitzordua.

Goizeko 11:00etan irekiko du Garbiñe Larrea naturopata eta herrikideak egitaraua "Sendabelarrek dakitena" eta "Sendabelar baratzea" liburuen aurkezpenarekin. Ondoren, abesti topaketa izango da eguerdiko 13:00etan, Kantazaun taldearen eskutik.

Bien bitartean, zizka-mizkak eskainiko dituzte Celtics Pub eta Biak kafetegietan. Hala, irakurketa txokoa ere egongo da, gonbidatu bereziekin, baita liburuak trukatzeko txokoa ere: irakurketa feminista, haur literatura, eleberririk beltza...

Urnietako irakurzaleentzat hitzordu interesgarria da, zailantzarik gabe.

## Meza eta hamaiketakoa

San Isidro eguna ospatu zuten Urnietan, aurreko astelehenean. Maiatzaren 15arekin bat eginez, meza izan zen San Miguel elizan eta hamaiketakoa ondoren, Lekaio kultur etxean. Urnietako Udala antolatzen duen eguna da. Aurtengoan ez da hamaiketakoa osatzeko bertso-saiorik izan. Garai bateko ospakizunari eusten diote, oraindik orain, Urnietan.

## ZORION-AGURRAK



ANDOAIN  
**Oinatz Zatarain Korrotxano**  
Maiatzaren 23an 12 urte beteko ditu. Zorionak etxeko guztien partetik, eta baita Unax eta Anerren partetik ere.

### Zorion agurrak Aiurri

- www.aiurri.eus.
- diseinua@aiurri.eus.
- Arantzibia 4-5, behea.
- 619 163 537 (whatsapp bidez).

## TELEFONO ZENBAKIAK

### URNIETA

Bertan: 943 008 000.  
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.  
Ertzaintza: 943 538 840.  
Osasun zentroa: 943 006 680.

### ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.  
Udaltzaingoa: 943 300 819.  
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.  
Osasun zentroa: 943 006 670.

## ODOL-EMAILEAK



### HURRENGO HITZORDUAK

**Maiatzak 22, astelehena.**  
16:30-20:30. URNIETA, Gaztelekuan.  
Hitzordua hartzeko: 943 007 884.



andoaINDARRA  
euskaraz

# Lehenik Basteron, eta, astelehenean, sarean

Asteartean, Andoni Alvarez (EH Bildu) eta Pepe Iparragirre (Elkarrekin Podemos) elkarrizketatu zituen Jon Ander Ubeda Aiurriko zuzendariak. Ostiral honetan, Mainer Lainezen (PSE-EE) eta Imanol Goenagaren (EAJ-PNV) txanda izango da

## Erredakzioa ANDOAIN

Elkarrizketa, hauteskunde-kanpainan, eta, jendaurrean. Erronka hori jarri die Aiurriko Andoainen ordezkariak duten lau hautagaiei. Aurreko edizioetan debata egin bazen ere, Aiurriko oraingoan formatua aldatzea erabaki du. Emaitza, Basteron izan ez denarentzat, aiurri.eus gunean ikusgai izango da hurrengo astelehenean aurrera.

Andoainen ordezkariak duten lau alderdi politikoetako hautagaiak beren egitasmoak aurkezten ari dira, aste honetan, Bastero Kulturgunean. Asteartean EH Bilduko Andoni Alvarezek eman zion hasiera, elka-

rizketa-sortari. Aurreko hauteskundeetan emaitza onena lortu zuen koalizioak, baina sozialisten eta jeltzaleen akordioaren ondoren aginte-makilik gabe geratu zen. Bigarren aurkeztu da Alvarez, alkatetza eskuratzeko helburuarekin.

Haren atzetik, Aiurriko galderari erantzuten jardun zuen Pepe Iparragirre Elkarrekin Podemoseko hautagaiak. Tere Santanaren lekukoa hartu du, eta ordezkariak berrestea dute helburu.

## Ostiral honetan, gehiago

Ordezkariak duten beste bi hautagaien txanda iristear da. Arra-

tsaldeko 19:00tan hasita, PSE-EEko Mainer Lainez igoko da taula gainera. Egungo alkatea da, eta kargua berrestea helburu du. Elkarrizketa-sortari amaiera emango dio EAJ-PNVko hautagai Imanol Goenagak. Zinegotzia da, egun, eta hauteskunde hauetan bera izango da jeltzaleen zerrendaburua. Aurreko hauteskundeetako emaitza hobetzea dute abiapuntu.

Elkarrizketa sortaren hurrenkera zozketa bidez egin da.

Jendaurrean, ordu ezberdinetan egin badira ere, lau elkarrizketak aiurri.eus webgunean ikusi ahal izango dira maiatzaren 22an.



Andoni Alvarez EH Bilduko hautagaia, Bastero Kulturgunean. AIURRI



Pepe Iparragirre Elkarrekin Podemoseko hautagaia, Bastero Kulturgunean. AIURRI

#ANDOAIN #UDALHAUTESKUNDEAK23

## AIURRI.EUS WEBGUNEAN

ANDOAINGO UDALETXEAN ORDEZKARITZA DUTEN 4 HAUTAGAIKIN

Andoni Alvarez  
EH Bildu



Pepe Iparragirre  
Elkarrekin-Podemos



Mainer Lainez  
PSE-EE



Imanol Goenaga  
EAJ-PNV



**WWW.AIURRI.EUS:**  
**ELKARRIZKETAK IKUSGAI MAIATZAREN 22TIK AURRERA**